

X. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

On guztien iturri zaren Jauna,
entzun gure otoitza:
zure argiak argi egin diezagula, zuzen dena ezagutzeko,
eta zure laguntzak indar eman, betetzeko.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 3, 9-15

*Haserrea sortuko dut
zure jatorriaren eta emakumearen artean.*

Genesis liburutik

Jaungoiko Jaunak gizonari dei egin zion eta honela esan zion: «Non zara?» Eta hark erantzun: «Baratzean ibiltzen sumatu zaitut eta, larrugorri nengoelako, beldurrez, gorde egin naiz». Jaunak orduan: «Eta nork esan dizu, larrugorri zeundela? Jatea galarazi nizun zuhaitzetik jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Lagun ipini didazun emakumeak eman dit hartatik, eta nik jan». Orduan Jaungoiko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak atzipetu nau, eta nik jan».

Orduan Jaungoiko Jaunak sugeari esan zion:
«Hori egin duzulako,
madarikatua izango zara
abere guztien eta landako pizti guztien artean;
sabel gainean ibiliko zara narraztaka;
zure bizitzako egun guztietan hautsa jango duzu.
Haserrea sortuko dut
zure eta emakumearen artean,
zure jatorriaren eta harenaren artean;
honek buruan emango dizu,
zuk orpotik helduko diozunean».

ERANTZUN SALMOA: Sal 129, 1-2. 3-4. 5-6. 7-8

**R/. Jaunagan dago errukia,
Harengan askatasun ugaria.**

Barnenetik Zuri dagizut oihu, Jauna,
entzun, Jauna, nire mintzoa.
Beude erne zure belarriak,
nire oihu eskarira. R/.

Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna,
nor dagoke zutik, Jauna.
Baina barkamena Zugar daukazu,
Zu begirunez zerbitza zaitzagun. R/.

Jaunagan itxaroten nago,

nire barrena Haren hitzaren zain dago.
Gaumutilla goiz-argiaren zain dago:
Nire gogoa Jaunaren zain dago. R/.

Gaumutilla goiz-argiaren zain dago:
Israel Jaunaren zain hala bego.
Jaunagan baitago errukia,
Harengan askatasun ugaria;
Berak utziko du Israel askaturik,
egin dituen hoben guztietatik. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Kor 4, 13–5, 1

Sinesten dugu, eta horregatik hitzegiten dugu.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Liburu Santuak honela dio: «Sinetsi dut, eta horregatik hitzegin dut». Eta guk ere sinemen espiritu bera dugarik, sinesten dugu, eta horregatik hitzegiten dugu; jakinik, Jesus Jauna biztu duenak Berak biztuko gaituela gu ere Jesusekin eta bere ondoan ipiniko zuekin batera. Hau guztia zuen onerako da; graziadunak ugaritzen direlarik, haien esker ona ere ugariagoa izan dadin Jaungoikoaren aintzarako.

Horregatik, ez dugu etsitzen; eta azaleko gure gizakia hondatzen ari bazaigu ere, barrukoa indarberritzen ari zaigu egunetik egunera. Izan ere, laburra eta arina den nekeak, betirako den aintza haundi neurrigabea sortzen digu. Gure begiak ez ditugu ipintzen ikusten diren gauzetan, ikusten ez direnetan baizik. Ikusten direnak apur baterako baitira; ikusten ez direnak, berriaz, betirako.

Badakigu, izan ere, orain lurrean bizi garen oihala txabola hau hondatzen bazaigu ere, badaukagula zeruan etxea, Jaungoikoak egin eta ez gizakiak, betirako bizilekua.

EBANJELIOA: Mk 3, 20-35

Aleluia: Jn 12, 31b-32

R/. Aleluia.

V/. Orain, mundu honetako nagusia
kanpora haizatuko dute —dio Jaunak—;
eta Nik, lurretik gora jasoko nautenean,
Neuregana bilduko ditut guztiak. R/.

Satanasenak egin du.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, itzuli zen Jesus ikasleekin bere etxera eta, halako gizataldea bildu zitzaien, jateko ere betarik ez zieten ematen. Haren ahaideak, hori jakitean, Hura hartu eta eramatera atera ziren, burutik eginda zegoela esaten baitzuten.

Jerusalendik jaitsitako idazlariak honela mintzo ziren Jesusengatik: «Beltzebe dauka honek bere barruan, eta deabruen buruzagi denaren indarrez botatzen ditu deabru:

Jesusek, Beregana deiturik, honela esan zien parabolatan: «Satanasek nola bota dezake Satanas? Erreinuren bat erdibi egiten bada, erreinu horrek ezin dezake iraun. Eta etxe bat erdibi egiten bada, etxe horrek ezin dezake zutik iraun. Satanas, bere buruaren aurka jaikita, erdibi egiten bada, ezin dezake zutik iraun; harenak egin du. Ezin dezake inork, gizon indartsuaren etxean sartu eta haren gauzak ostu, aurrez indartsu hura lotzen ez badu; orduan, bai, ostuko ditu etxe hartakoak. Benetan diotsuet: oker guztiak barkatuko zaizkie gizakiei: bekatuak eta biraoak, ugariak badira ere; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak, ez du sekulan barkamenik izango, bekatuaren errudun izango da betiko». Espiritu lohia zeukala ziotenetaz mintzatu zen honela. Etorri ziren Jesusen ama eta senideak; eta, kanpoan gelditurik, deiarazi zuten. Haren inguruan eserita zeukan jende taldea, eta esan zioten: «Hor dituzu kanpoan zeure ama eta senideak, zure bila».

Jesusek erantzun zuen: «Nortzuk dira nire ama eta nire senideak?» Eta bere inguruan eserita zeudenei begiratuz, honela esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak. Jaungoikoaren nahia egiten duena, hura da nire anaia, eta arreba, eta ama».

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna, aldareko gure zerbitzuari:
gure eskaintza Zuretzat atsegingarri izan dadin
eta gure maitasunarentzat sendogarri.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko guztiz ona,
Zuk emandako sendabide honek
geure gaiztakerietatik atera gaitzala
eta bide zuzenera eraman.
Jesu Kristo.